


ZATIKIAK

Hemen proposatzen zaizkizuen ariketen helburua honako prozesu hauek jakitea da.

- Zatikiak interpretatzea eta irakurtzea.
- Zatikiak konparatzea (unitatearekin eta beraien artean).
- Zatiki baliokideak zeintzuk diren jakitea.
- Zenbaki baten zatikia klakulatzea.
- Zatikiak dituzten problema sinpleak ebazten jakitea.

Hortaz, ariketa hauek egitean antzekoak diren beste batzuek sortu ditzakezue goiko helburu hauek lortu dituzuela ziurtatzeko.

Zatikiak interpretatzea

 $\triangleright \frac{1}{2}$  $\triangleright \frac{2}{4}$  $\triangleright \frac{3}{8}$  $\triangleright \frac{4}{6}$


Zatikiak irakurtzea

$\frac{1}{2} \triangleright$ erdia	$\frac{2}{3} \triangleright$ bi heren	$\frac{3}{4} \triangleright$ hiru laurden	$\frac{3}{5} \triangleright$ hiru bosten
$\frac{5}{6} \triangleright$ bost seiren	$\frac{4}{7} \triangleright$ lau zazpiren	$\frac{6}{8} \triangleright$ sei zortziren	$\frac{7}{9} \triangleright$ zazpi bederatziren

1) Idatzi zer zatikik adierazten duen koloreztatutako zatia.



2) Margotu zatiki bakoitza



3) Idatzi nola irakurtzen diren:



4) Esan ondorengo zatiki hauek unitatea baino handiagoak diren edo txikiagoak

Zatikia	Unitatea baino handiagoa	Unitatea baino txikiagoa
$\frac{3}{7}$		
$\frac{7}{5}$		
$\frac{5}{4}$		
$\frac{5}{6}$		
$\frac{3}{3}$		
$\frac{3}{4}$		

5) Idatzi $>$, $<$ edo $=$ kasu bakoitzaren arabera. Honako hau egiteko, aldeztu aurretik egin ezazu bakoitzaren marrazkia eta ondoren alderatu.

a) $\frac{6}{9} \bigcirc \frac{4}{9}$

c) $\frac{7}{11} \bigcirc \frac{6}{11}$

e) $\frac{9}{5} \bigcirc \frac{9}{6}$

b) $\frac{6}{10} \bigcirc \frac{8}{10}$

d) $\frac{3}{7} \bigcirc \frac{3}{5}$

f) $\frac{5}{9} \bigcirc \frac{5}{6}$

6) Esan ondorengo zatikiak baliokideak diren edo ez.



$$\frac{1}{3}$$



$$\frac{2}{6}$$

Baliokideak al dira? ...



$$\frac{1}{5}$$



$$\frac{2}{10}$$

Baliokideak al dira? ...



$$\frac{2}{6}$$



$$\frac{4}{12}$$

Baliokideak al dira? ...

Oroitu: Bi zatiki unitatearen zati bera adierazten dutenean baliokideak direla esaten da.

7) Kalkulatu

• 27ren $\frac{2}{3}$

• 50en $\frac{4}{5}$

• 66ren $\frac{5}{6}$

• 280ren $\frac{1}{7}$

• 800en $\frac{5}{8}$

• 189ren $\frac{3}{9}$

8) Ebatzi ondorengo buruketak:

Maialenek 60 euro zituen itsulapikoan. Diruaren laurdena gastatu zuen liburu batean, eta bostena, kamiseta batean. Zenbat diru geratu zaio?	Iruneren biberoiak 25 zentilitroko edukiera du. Egunero Irunek biberoi oso bat hartzen du eta beste baten hiru bosten. Zenbat zentilitro esne hartzen ditu Irunek egunean?
Nekane txokolatinak erosi ditu. Txokolatina bakoitza 16 zati berdinen banatu ditu. 18 zati jan ditu. Txokolatina bat baino gehiago ala gutxiago jan ditu?	Kamioi batek 5000kg pisua du kargatuta dagoenean. Kamioiak pisuren bi zortireneko pisua du. Zer pisu du zamak?